IN-E 362/01-22

HPE SIMPLIVITY 325 G10+ V2 AZPIEGITURAREN BILTEGIRATZE-GAITAZUNA HANDITZEKO HORNIDURA KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

KONTRATU IREKIA OSO SINPLIFIKATUA

Espediente zenbakia:
KON_IOS_0008_2026

Espediente mota: Administrazino kontratazinoa

UDALAREN HPE SIMPLIVITY 325 G10+ V2 AZPIEGITURAREN BILTEGIRATZE-GAITAZUNA HANDITZEKO HORNIDURA KONTRATUA

BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK
Kontratu Irekia Oso Sinplifikatua

1. KONTRATUAREN XEDEA

Preskripzio Teknikoen Agiri honen xedea da Bermeoko Udalaren HPE SimpliVity 325 G10+ v2 azpiegitura hiperbateratuaren biltegiratze-gaitasuna handitzeko beharrezkoak diren baldintza teknikoak ezartzea.

Horretarako, beharrezkoak diren hardware-osagaiak, lizentziak, osagarriak eta gainerako elementuak hornituko dira, baita instalazio-, konfigurazio- eta martxan jartze-lanak ere, egungo azpiegiturarekiko bateragarritasun osoa bermatuz.

2. AURREKARIAK

2023. urtean Bermeoko Udalak HPE SimpliVity 325 G10+ v2 teknologian oinarritutako azpiegitura hiperbateratua ezarri zuen, udaleko zerbitzu korporatibo nagusiei euskarria emateko.

Azpiegitura hori gaur egun produkzio-ingurunean dago eta udaleko informazio-sistema, zerbitzari birtual eta aplikazio korporatibo nagusiei euskarria ematen die.

Azken urteotan informazio-bolumenaren hazkundeak eskuragarri dagoen biltegiratze-gaitasuna nabarmen murriztu duenez, beharrezkoa da plataforma handitzea.

CSV: 07EA0017EC8F00H2P3U0K8W5I6

3. EGUNGO AZPIEGITURA

Bermeoko Udalak gaur egun HPE SimpliVity 325 G10+ v2 plataforman oinarritutako azpiegitura hiperbateratua dauka instalatuta.

Azpiegiturak honako osagai nagusi hauek ditu:

- HPE SimpliVity 325 G10+ v2 nodoak.
- HPE SimpliVity biltegiratze-plataforma.
- HPE SimpliVity SSD unitateak.
- Plataforma kudeatzeko beharrezko lizentziak.
- Udalaren zerbitzu korporatiboak exekutatzen dituzten makina birtualak eta informazio-sistemak.

4. HORNIDURAREN IRISMENA

Kontratuaren xedea da dagoen HPE SimpliVity 325 Gen10 Plus v2 azpiegituraren biltegiratze-gaitasuna handitzea.

Egungo konfigurazioa

Azpiegitura 2 nodok osatzen dute (serie-zenbakia CZ23410092, eta serie-zenbakia CZ23410093).
Nodo bakoitzak 6 SSD ditu datuetarako (1,92 TB), 8 bahiatik; 7. eta 8. bahiak libre daude.

Hedapena

Nodo bakoitzaren 7. eta 8. bahiak beteko dira, nodo bakoitzak 8 SSD izan arte datuetarako. Gaitasun fisiko gordina 11,52 TB-tik 15,36 TB-ra igaroko da nodo bakoitzean, eta 23,04 TB-tik 30,72 TB-ra osoan.
Hedapena modu simetrikoan egingo da bi nodoetan.

Hornidura

Kontratistak honako elementu hauek hornitu beharko ditu, gutxienez:

- 4 HPE SimpliVity 1,92 TB SATA RI BC MV SSD unitate (nodo bakoitzeko 2)

CSV: 07EA0017EC8F00H2P3U0K8W5I6

- 2 HPE SimpliVity Node Trk 325 Expand Kit (nodo bakoitzeko 1)
- Hedapenerako beharrezkoak diren lizentziak, hala badagokio.
- Fabrikatzaileak hedapena gauzatzeko beharrezkotzat jotzen dituen gainerako elementuak.

Lizitatzaileak hornitutako soluzioak handitze osoa gauzatzeko beharrezkoak diren elementu guztiak jaso beharko ditu.

Instalazioa
Instalazioa, konfigurazioa eta martxan jartzea kontratistaren kontura izango dira, eta zerbitzua eten gabe egingo dira, nodoz nodo, erakundearekin adostutako mantentze-lanetarako tarteetan. Kontratistak HPEren ziurtagiria duen langileria erabili beharko du.

Entrega eta onarpena
Lanak amaitutakoan, kontratistak klusterraren egoera egokia eta gaitasun berria egiaztatuko ditu, eta dokumentazio teknikoa emango du. Horniduraren entrega-epea hilabtekoa izango da gehienez, kontratua sinatzen denetik.

5. HORNITU BEHARREKO ELEMENTUEN BALDINTZA OROKORRAK

5.1. Elementuen egoera

Hornitutako hardware-osagai, lizentzia, osagarri eta gainerako elementu guztiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Berriak izango dira.
- Aurretik erabili gabeak izango dira.
- Ez dira berriztatutako (refurbished), birziklatutako edo bigarren eskuko elementuak izango.
- Fabrikatzailearen jatorrizko kanal komertzial ofizialetatik etorriko dira.
- Fabrikatzailearen jatorrizko ontzian entregatuko dira, hala badagokio.

5.2. Kalitatea eta jatorria

Hornitutako elementu guztiek jatorrizko fabrikatzailearenak izan beharko dute edo, hala badagokio, fabrikatzaileak homologatutako eta onartutako osagaiak.

Elementuek fabrikatzaileak ezarritako kalitate-, fidagarritasun- eta segurtasun-baldintzak bete beharko dituzte.

5.3. Araudia betetzea

CSV: 07EA0017EC8F00H2P3U0K8W5I6

Hornitutako elementu guztiek aplikatu beharreko Europako eta Estatuko araudia bete beharko dute.

Gutxienez:

CE markaketa izango dute, hala dagokionean.
Segurtasun-araudia beteko dute.
Bateragarritasun elektromagnetikoari buruzko araudia beteko dute.
Ingurumenaren eta energia-eraginkortasunaren arloko araudia beteko dute.

5.4. Bateragarritasuna

Hornitutako hardware-osagai, lizentzia eta gainerako elementu guztiek erabateko bateragarritasuna izan beharko dute Bermeoko Udalean instalatuta dagoen HPE SimpliVity 325 G10+ v2 azpiegiturarekin.

Hornidurak ezingo du fabrikatzailearen bermea, euskarria edo mantentze-baldintzak galtzea eragin.

5.5. Fabrikatzailearen homologazioa eta euskarria

Eskainitako soluzioak HPE SimpliVity 325 G10+ v2 azpiegituretan erabiltzeko egokia izan beharko du, eta fabrikatzailearen berme- eta euskarri-baldintzak mantentzea ahalbidetu beharko du.

Lizitatzaileak egiaztatu beharko du eskainitako osagai eta lizentziek lehendik dagoen azpiegiturarekin integrazio zuzena ahalbidetzen dutela.

5.6. Baliokidetasun teknologikoa

Plegu honetan jasotako baldintza tekniko guztiek gutxieneko izaera izango dute.

Baliokidetzat onartuko dira HPEk SimpliVity 325 Gen10 Plus v2 plataformarako idatziz bateragarritzat eta onartutzat jotzen dituen elementuak soilik, betiere egungo bermea eta HPEren euskarri-kontratua eraginik izan gabe.

5.7. Dokumentazio teknikoa

Lizitatzaileek eskainitako elementuen honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- Marka.
- Modeloa.
- Fabrikatzailearen fitxa teknikoa.
- Eskainitako lizentzien deskribapena.

CSV: 07EA0017EC8F00H2P3U0K8W5I6

- Eskainitako osagaiak eta lizentziak Bermeoko Udalean instalatuta dagoen HPE SimpliVity 325 Gen10 Plus v2 azpiegiturarekin bateragarriak direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

Bateragarritasunaren egiaztapena honako bitarteko hauetako edozeinen bidez egin ahal izango da:

- HPEk emandako dokumentazio ofiziala.
- HPEren bateragarritasun-matrizeak edo produktu-dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioak aukera eman beharko du plegu honetan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

5.8. Bermea

Hornitutako elementu guztiek fabrikatzailearen berme ofiziala izango dute.

Berme-aldian zehar agertzen diren akats, funtzionamendu-arazo edo integrazio-arazoak adjudikaziodunak konpondu edo ordezkatu beharko ditu, Bermeoko Udalarentzat kostu gehigarririk sortu gabe.

6. INSTALAZIOA ETA KONFIGURAZIOA

Kontratistak honako jarduketa hauek egingo ditu:

- Osagaien instalazio fisikoa.
- Beharrezko firmware edo software eguneraketak.
- Biltegiratze-ahalmenaren konfigurazioa.
- Egungo inguruneko integrazioa.
- Funtzionamendu-probak.

Instalazio guztia fabrikatzailearen gomendioen arabera egingo da.

7. MARTXAN JARTZEA ETA BALIOZTAPENA

Hornidura instalatu ondoren, kontratistak egiaztatu beharko du:

- Hedapena behar bezala integratuta dagoela.
- Biltegiratze-gaitasuna behar bezala handitu dela.
- Ez dagoela akatsik edo alarma kritikorik.
- Azpiegiturak normaltasunez funtzionatzen duela.

Horretarako, amaierako txostena aurkeztuko da.

CSV: 07EA0017EC8F00H2P3U0K8W5I6

8. BERMEA ETA EUSKARRIA

Hornitutako osagai guztiek fabrikatzailearen berme ofiziala izan beharko dute.

Kontratistak bere gain hartuko ditu instalazioaren ondoriozko akats edo gorabeherak berme-aldian zehar.

9. ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Honako dokumentazioa entregatu beharko da:

- Hornitutako osagaien zerrenda.
- Serie-zenbakiak.
- Lizentzien zerrenda.
- Instalazio-txostena.
- Martxan jartze eta balioztatze txostena.

CSV: 07EA0017EC8F00H2P3U0K8W5I6